

JESUS LARRAÑAGA GOGORATUZ

Jesus Larrañaga (Goierri gaitzizena zuena), langile aintzindari bikaina, langile zintzoa, antolakuntza-gaitasun handiko lankidea, gizartearen aldaketagatik bere bizia eman zuen heroia, gidari berezia eta Euskadiko Partidu Komunistaren sortzailea zen, igarotzen zen lekuetan bere begikortasunaren eta nortasun handiaren arrastoa uzten zuena eta beharra zuten pertsona guztiei laguntzeko prest ageri zen beti. Bere bizitzaren norabidea oso adierazgarria, sufritua eta eredu jartzekoa izan zen; milaka eta milaka komunistek begiratzen zuten ispilua zen eta giza aurrerapena nahi zuten eta giza eskubideetan pentsatzen zuten sozialisten, anarkisten, abertzaleen eta partidurik ez zuten pertsonen begirune handia izan zuen.

Goierri Beasainen bizi izan zen, Jose Marin Arana kalean eta CAFen lan egin zuen. Bertan estimu eta elkartasun handiak izan zituen; bere bizitza bizi-bizia izan zen arlo politiko eta sindikalean eta bera bezelako pertsonak ezin dira ahaztu, ahaztezinak dira eta.

Diktadura garaian, oztopo egiten zuenari bizia kenduz guztia konpontzen zen garai zail hartan, bere bizia arriskuan jarri eta galdu egin zuen, beraz bidezkoa da bere pertsonaren oroimena bizirik mantentzea.

Eta Jesus, justizia, demokrazia eta bizi-kalitate hobea nahi zuten eta hil zituzten beste milaka pertsonen arteko bat izan zenb. Bere hitzaldietan herri zapalduen aldeko hitz errebindikatzailerak ahoan zituen gizona izan zen; euskaldun ona, baita espainola ere, internazionalista zen eta Leninen filosofiaren interpretatzaile ona; giza klase guztiak eta munduko herri zapladu guztiak maite izan zituen, baina Euskadi batipat, eta horregatik kendu zioten bizia.

Goierri oso animatua zen, bere ikasia, leial, marxismo-arloan ongi prestatua, hiztun joria eta euskera menderatzen zuena. Euskadi, Demokrazia eta Askatasunarengatik guztia eman zuen belaunaldikoa izan zen. Orduan ametsak ziren helburuen alde egin zuen borroka eta helburuetako batzuek lortu egin dira eta gaur egun errealitate dira. Gara i hartan zenbait pertsonak ulertu ez bazioten ere, gaur egun guztiek ulertuko liokete eta batez ere dugun gazteria eskuzabal, zoragarri, dinamiko eta kultuak.

1936ko otsailaren 16an Diputatuen Kongresurako Gipuzkoako Fronte Herrikoien zerrendan hautagai izan zen. 1936k uztailean, Gipuzkoako Defentsa Batzordean Gerra-Komisari izendatua izan zen, eta geroztik armada frankistaren aurka borrokatzen eta jendea zuzentzen jarraitu zuen Gipuzkoan, Bizkaian, Kantabrian eta Asturiasen, Espainiar estatuaren iparraldeko borroka amaitu arte eta heroi moduko erresistentziaren azken unean, Yeuko irlara (Frantzia) eraman zuen itsasontzi bat hartu ahal izan zuen Xixongo portuan bere eta beste gudari batzuen bizia salbatzeko 1937ko urriaren 22an, eta handik Espainiara itzuli zen gerra guztiz amaitu arte borrokan jarraitzeko.

Baina 1942ko urtarrilaren 21eko egunsenti hotzean, Goierriren gorputza eta beste bost burkideenak Madrilgo La Almodena hilerriko horma baten oinean erori ziren exekuzio talde baten deskargaz erahilak. Egia okertu eta pertsona onak gaiztotzat nahiz ankerrak ohoretsutat azaltzen zituzten garaiak ziren haiek.



Jesus Larrañaga Kultur Elkartea osatzen dugunok, non komunista, sozialista eta independenteek elkarbizitza egiten dugun, egun batetan Elkartea eratzea erabaki genuen eta bere izena ematea bere oroitzapena iraurarazi asmoz eta borondateoneko pertsona guztiei irekita daukagu.

Beasaindarrok harro egon gaitezke, Goierrikoa izateagatik eta Beasaingo langile-mugimenduan bizitasun eta adore handiz parte hartzeagatik; gerran ez zen erreza izaten bere taldea, Larrañaga batailoia, zegoen luebakia igarotzea.

Eduardo GAMARRA BRAULIO

1. GAZTAROA

Jesus 1901eko apirilaren 17an jaio zen Urretxun (orduan Villarreal de Urrechua ofizialki), bere bizitzari buruzko oharren batek "*oso behartsutzat*" jotzen duen sendi batean. Aita, Joakin, kontratista zen. Izango zen hura baino sendi behartsuagorik herri hartan. Egia da hala ere, aitak lan egiten zuen tokietara aldatu behar izaten zuela familia guztiak.

Aitak eginak ziren Altzotitako uren ekarria eta Castro Urdialesko zenbait txalet. Azkoitian jaioa zen, "Goierri" izeneko baserri batean.

Ama ere, Margarita Txurruka, Azkoititik zetorren; lisatzailea zen ogibidez. Bera zen senitartekoen adorea eta kemena. Kosme Damian Txurruka, mutrikuarraren senitartekoa zen, Espainiako armadan Itsas Ofiziala zela kainoi bala batek hanka errotik atera eta hala ere bere tokian iraunik, 1805eko Trafalgar-eko hondamenaren heroi bihurtuarena alegia

Margaritak indar handiko izaera zuen, apala zen, erlijio-sinestuna eta bihotz handikoa. Sendiaren zamari eusten dioten eta harria bezain sendoak diren ama euskaldun horietako bat zen. Jesusen izaeran eragin handia izan zuen eta honek beti izan zuen bere amarekiko begirune berezia.

Lau anai-arreben artean hirugarrena zen Jesus. Luis Mari, zaharrena, eta Esteban, bigarrena, jesuita izan ziren eta gaztetan hil ziren etxetik urrun. Estebanek Filosofia eta Letren ikasketak egin zituen Burgosen eta sukarrak jota hil zen Kolonbiatik Euskal Herrira zekarren itsasontzian.

Gazteenak, Maria Josefak (Maribel deitua), bizitza luze eta gorabehera askokoa bizi izan du eta gaur egun Gasteizen bizi da. Buru oso ona, begikotasun handia eta aurpegi ederra ditu, bere amaren antzera eta Jesusena ere izan zenaren modura.

Beasainen jaio zen Maria Josefa, familiak 1903an edo 1904ean etxea hartu zuen tokian. "Aranaren etxeetako" etxebizitza batean bizi izan ziren, J. M. Iturriotz kalearen eta Oria ibaiaren artean dauden bi etxe-multzo sendoetako batean.



Demografiak iraultza handia eragin zuen ekonomi garapena hasi zen Beasainen garai hartan. 1900ean 1.932 bizilagun zituen, 1910ean 2.973 jada, 1918an berriz 3.659. 1857an Km²-ko 44,5 bizilagun izatetik 99,15 izatera pasa zen.

Burdingintzaren aurrerakada izan zen biztanle kopurua igotzeko arrazoia. Honen inguruan garatu bide ziren etxegintza eta zerbitzuen eskaintza, eta Joakin Larrañaga kontratistari bide zabala ireki zion. Larrañaga familia bizi izan zeneko Jose Martin Arana kaleko etxeak egin berriak ziren. 1900 inguruan eraiki ziren errebote, erremonte eta puntako pilotalekua zeuden orube berean.

Margaritak bere izate erlijioso eta euskalduna erakutsi zien bere seme-alabei. Urretxun bizi zirenean, Jesusen Bihotza etxean jartzen lehenengoak izan ziren. Aldare mugikorra ezarri zuten gela batean eta hara etortzen zen Luisen amari aitortpena entzun eta jauna ematera sendiaren arimazuzendaria zen apaiz bat. Hala dio Maria Josefak apaiz horri buruz: *"Apaiz jatorra zen. Garai hartan zegoen apaiz gutxitako bat. Baserritarra zen, oso baserritarra, ohitura oso baserritarretakoa. Biziki maite zuen Euskal Herria. Asko erakutsi zion amari"* (1). Anaia zaharrenek laster hartu zuten apaiztegirako bidea. Loiolan egon ziren eta Bogotara (Kolonbia) bidali zituzten. Euskaraz egiten zen senitartean, noski, eta pentsatzekoa da Jesusen 1912an Zangotzan (Nafarroa) Xabierren Ikastetxe Apostolikoan (Colegio Apostólico de Javier) hasi zenean lan handiak izan zituela gaztelerara ohitzeko, ez baitzuen hura bere ama-hizkuntza.

Apaiztegiaren sartzeko aurretiko pausoa izan zen ikastetxea. Ikasketen eta adimenaren antolamendu zorrotza aurkitu zituen han. Goiz jaiki, nork bere burua eta gela garbitu, gosari urria, mezak, errosarioak, gogamena lantzeko irakurketak, Latin eta Histori ikastaroak, bazkaria, ikastorduak eta soinketa. Hiruhileroko azterketak.

Bere nebaren bizkortasunari buruzko Maria Josefaren esanak, ez dira arrebaren grina soila, gaur egun itxia dagoen ikastetxeko agirietan gordeta dauden Jesusen notek, aita Castillok gogo onez eskuratu dizkidanek, egiaztatzen dituzte esan horiek. Jesusen hiru ikasturteetako nota guztiak (1912-1913, 1913-1914, 1914-1915) "bikain" dira.

Jesuiten irakaskuntzaren oinarritzko hizkuntza zen latina ondo ikastea lortu zuen. Heziketa klasikoona jaso zuen (erromatar idazlanak latinez irakurri zituen) eta oratoria ikasi zuen hizlari jesuita izan zedin. Ez zuen berak inolako susmorik orduan, eta are gutxiago bere irakasleek, ondorengo ihardun iraultzailean hain baliagarri izango zitzaionik irakaspen hura.

Apaiztegiko igaroaldiak aztarna sakona utzi zion; hala erakusten du Jesus zinez begiko izan zuen eta Parisko Sorbonako bere irakasle izan ondoren gaur lanetik jubilatua dagoen Manuel Chiapuso donostiar anarkistak: *"Beti geratu zitzaion zerbait apaiztegiko igaroalditik. Aztarna batzuek iraun egiten dute. Jesuitek eztabaidatzen irakatsi zioten eta horregatik zen hain eztabaidatzaile ona. Ikasleak eztabaidatzera bultzatzen dituzte, batzuek besteengandik ikas dezaten. Errusiar dialektika entzutetsua inaziotarra baino ez da. Stalinek mesanotxean gordeta zituen San Inazioaren gogojardunak. Guk «jesuita gorri» esaten genien komunistei, eta haserretzen ginenean <<jesuita narrats>>. Haien dialektika entzutetsua, inaziotarren dialektikatik datorkie"* (2).



Gero eta ikasle gutxiago zegoen, baina bikain ateratzen zituen Jesuek hiruhiletako notak. Besteren artean Arzelus, Bolunburu, Redin, Peña, Areitio eta Gorostiaga zituen ikaskide. Hauetako bat Ricardo Garcia Villoslada zen, jesuita eta ordena horren historigile handia, 1991n hila.

Baina Jesus betidanik izan zen bihurria eta berezko bihurritasun hori zela eta, eskola utzi egin zuen. Jesusen Lagundiak garrantzi handiko gizona galdu zuen.

Mari Josefak horrela kontatzen du pasarte hura: "Jesus beti izan sen bihurri samarra. Inoiz ez zuen onartu zer egin behar zuen beste norbaitek esatea. Amak aurpegia garbitzeko esan, eta Jesuek aurpegia garbitu baina belarriak garbitu gabe uzten zituen. Nire ama oso garbia zen eta "Jesus ez al dituzu belarriak garbitu behar?" esaten zion. Galtzekin izandako gorabehera bategatik haserretu zen behin. Orduan buelta emanda eramaten ziren galtzak ez zituen bere gustoko eta amak berriz galtza haiek jaztera behartzen zuen. Hainbestearino haserretu eta nazkatu zen, giltzapetu egin gintuela etxean. Giltza hartu eta baratza batera bota zuen. Baina ondo zekien giltza non zegoen. Jesus kontu handiz tratatu beharra zegoen. Zakar jokatzuz gero jai zenuen.

Apaiztegia fruitu-zuhaitz ugari zituzten eta debekatua zuten haietara igotzea. Debekua ezartzea nahikoa, zuhaitzez zuhaitz ibiltzeko. Eraña aita Zuzendariak bere bulegora deitu zion, eta Jesuek "Ni banoa hemendik" esan zion. "Banoa apaiztegitik". Erañak, bere mehatxua beteko ez zuelakoan "Zoaz, bada" esan zion. Jesuek gehiago itxaron gabe, bere gelara joan, bere gauza urriak bildu eta Iruñera alde egin zuen. Han, ezagun batek dirua eman zion bere etxera itzultzeko, eta hara non azaldu zen". Xabierko fitxak Comillasko (Cantabria) Unibertsitate Pontifizioan sartu zela eta 1916-1917 ikastaroa han igaro zuela esaten du.

1917 edo 1918 urtean hasi zen Jesus lanean. Peoi sartu zen Beasaingo "Construcciones Auxiliares de Ferrocarril" (CAF) lantegian.

Beasainen garapena burdingintza industrialarekin lotuta dago erabat, eta burdinbidetarako materialen lantegiekin batez ere.

1861ean elkartu zen Domingo Goitia Iurreko burdinolaren administraria zen Usabiaga familiarekin eta gaur CAF lantegia dagoen tokian San Martin burdin lantegia sortu zuten elkarrekin. Goitiak kapitalaren % 75 jarri zuen. "Hasieran, burdina gozatzeko labe batzuek eta zilindro bidez ijezteko tresnaz osatu zuten lantegia, baina 1862rako labegarai bat bazegoen, eta 1865ean beste bat, Espainiar Estatuko iparraldeko burdinbidea eta beste olen eskaera azkarra zela eta. Probintziako aitzindariak izan ziren horretan" Castells historiagileak dioenez (3).

Beasaingo burdingintza probintziako punta-puntakoa bihurtu zen horrela, aurreneko egur-ikatzezko labearekin. Azken karlistadak olaren goraldia eten eta geldiarazi egin zuen. Bere ekoizpena aldatu beharrean geratu zen gerra bukatu ondoren, eta burdin xaflak egiten hasi eta Espainiar Estatuko lehenbiziko lantegia izatera iritsi zen. Altzairua salduko zien lantegirik ezean, nagusiek, Goitiatarrek, egoitza gehienak Sestaora aldatzea erabaki zuten, eta bertan "La Iberia" izeneko lantegia sortu zuten Etxeberrira anaiekin



elkartuta. Beasaingo langile eta teknikari talde bat lantegiarekin batera aldatu zen Sestaora eta bertan finkatu zen.

1982an ireki zen berriro lantegia, "La Maquinista Guipuzcoana" izenarekin. Burdinbideetako tresneria eta gai higikorrak egiten zituzten. 1901ean "Sociedad Española de Construcciones Metalicas"ek "La Maquinista" hartu zuen alojeran eta "Fábrica de Vagones de Beasain" izatera pasa zen; 1.307.000 pezetako kapitala zuen eta, Iberiar penintsulako ondare handiko burdingintza-guneak biltzen zituen enpresa-talde batetako partaide bihurtu zen. Elkartearen bidez lehia uxatzen zuten, bakoitzaren ekoizpena zedarriz. Beasaingo ola, aurreko ibilbideari jarraiki, burdinbiderako materialak egiten hasi zen, bagoiak batipat, eta Espainiako eskaeraren parte handi bat bereganatu zuen.

Lehengaita Bizkaiko labe garaiek saltzen zioten batez ere, eta baita neurri murriztago batean bere lantegiek ere; horretarako Martin Siemens labeak, Bessemer bihurtailuak eta altzairu-galdategia izanik(4).

1905eko maiatzaren 13an aurreneko bagoia atera zen eta ekoizpena asko handitu zen. 1906an 556 bagoi egin zituen 690 langilerekin. Honakoa izan zen hurrengo urteetako garapena: 1907an 608 bagoi 730 langilerekin. 1908an 1.120 bagoi 845 langilerekin. 1914an 3.200 bagoi 1800 langilerekin.

Baina handiagoa izan zen garapena I. Mundu Gerran (1914-1918) eta "*ordurarte ezagutu gabeko zabalkuntza ekonomikoa eragin zuen*" Hego Euskal Herri osoan. Lan ikuskatzailea zen Guzman de la Vegak 1918. urtean esan zuen gipuzkoar industria metalurgikoa "*gerrak gehien lagundu zuena*" izan zela (5).

Portugalgo eta Frantziako eskaerak iritsi ziren. 1917an alojeran hartu zuen lantegia CAF sozietate anonimoak(6). Enpresa berriak burdin lanketa eta iraketa lantegiak, mekanika-lantegiak, aroztegia, malgukiak egiteko eta burdina, altzairua eta metalak lantzeko lantegiak zituen

Hurrengo urtean peoi sartu zen Jesus seguruenik. 1925ean jabegoa eskuratu zuen; enpresaren dirutza 20 milioi pezetakoa zen, garai haietarako dirutza garrantzitsua.

1914ko hazkundera bitartean probintziatik oldeka iritsi zen jendea Beasaina; herriak, eta bagoi-lantegiak batez ere, asko nabaritu zuten biztanle-hazkundera, 1911ko mehatzetako Buruzagitzako txosten batek CAF-i dagokionean zera dio: "Gaur egun ez dago langile atzerritarrik; ia guztiak probintziakoak dira".

Julio Lazurtegi idazlearen esanetan "Sociedad Española de Construcciones Metálicas"ek "ez zuen batere atzerriko langilerik; ia denak probintzia bertakoak ziren, urrunetik etorritakoak Arabakoak eta Nafarroakoak, gutxiengo kaxkar bat beste probintzietakoa". Gipuzkoatikako etorrera horretan iritsitakoa izan zen Larrañaga familia ere.

1914 urtetik aurrera Espainiako lurraldeetako langileak etortzen hasi ziren.

Beasaingo bizilaguna den Jose M. Ibarbiak gaztaroan CAFen lan egin zueneak eta gaur egun bere 88 urterekin sasoi ikargarria izanik bere kontatuz barre egiten une ona



gogoratzen du:"3.000 eta gehiago langilek lan egiten genuen han. Mundu Gerra, 1918an amaitzean, Zuzendaria gerran beso bat galdutako frantses bat zen. Ni bagoi lantegian lanean hasi nintzenean ez segoen inongo eskupekorik, eta Zuzendari frantses horrek Gabonetan lehen eskupekoa eman zuen.

Valladolidetik asko etorri ziren lanera. Haietako bati «Valladolideko enbaxadorea» deitzen genion".

Garapen honi esker, Gipuzkoako itzal handikoen artean egokitu zen Goitia familia. Frantzisko Goitiak aldi berean hartu zituen bere enpresa-ardurak eta gizarte eta politikazkoak. 1891n "La Prudencia" eta "La Maquinista Guipuzcoana" lantegietako akzioak zituen. 1901ean "Españoles de Construcciones Metálicas" elkarte sortu zuen, "Compañía de Asfaltos de Maeztu", "Sociedad española de piedra, vidrio y construcciones Gardiey"ko akziodun zen, eta Iberiako Gobernu Batzordeko kide. Bizkaiko eta Gipuzkoako ekoizle-elkargoetan (ugazaben sindikatua) ihardun nabarmena burutu zuen. Kongresuko Diputatu eta probintziako Diputatu izateko hauteskundera aurkeztu zen Errepublika garaian.

Beste sail batzuetara ere heldu zen ekonomi garapena. 1908an egurra distilatzeke zegoen ola bat erabiliz idazteko tinta egiteko lantegi txiki bat sortu zuen Jose Martin Aranak Beasainen. "Tintas de Escribir Euskalduna" izena zuen lantegiak. 1912an Emilio Hunoltek eskuratu zuen lantegia eta idazteko tintak egiten hasi zen.

Garapen hau Goierriko beste herri batzuetan gertatutakoaren antzekoa da; honela Ander Gurrutxaga irakasleak dioenez *"ezin da hitz egin zentralitate izaera duen Udalerri bakar batez. Zeregin hau betetzen duen ardatza aipatzea zuzenagoa da; Beain-Ordizia-Urretxu eta Zumarraga Udalerriek osatzen dutenaz ari gara hain zuzen ere. Aipatutako lau herrien multzoa 1900-1930 urteen artean Goierri gertatutako biztanle-hazkunderaren %92a jasotzen du" (7). 1900ean Beasaingo biztanlegoa Goierriko eskualde osokoaren %9,3a zen, 1910ean %12,65a, 1920an %14,39a, 1930ean %16,98a, 1940an %15,18a eta 1950ean %14,81a. Goierri osoan Beasaingo jendetzaren pisuaren gehikuntza-joera bat badago, eta 1930ean lortu zuen bere goren puntua garai hartan.*

Militante abertzalea zen lagun baten bidez hasi zen Jesus abertzaletasunarekin harremanetan. Eusko Gaztedin sartu zen Ordiziako (orduan Villafranca de Oria) Batzokian. Batzoki honetan adin bereko eta antzeko izaera zuen Joseba Rezola Arratibelekin batera militatu zuen. Pentsamoldez at, lagun onak izan ziren eta nahiz eta Josebak EAJn jarraitu, non burukide nabarmenetakoa izan zen, Donostiako Gerra Komisaldegian buruz buru Ian egiteko aukera izan zuten. Gero Joseba Euskadido Defentsa Kontseilaritzako Idazkari izan zen eta faxistek fusilatua izatetik hurrean egon zen.

1908an EAJk Batzokia ireki zuen Beasainen. Baina Primo de Riveraren Diktadura zela eta (1923-1930) itxi egin behar izan zuen EAJk Batzokia. 1936ko uztailaren 18ko zoritarreko egun hartan berriz ireki zuten, 17an antzerki emanaldi bat eman zelarik; baina 8 egun baino ez zituen iraun zabalik uztailaren 27an altxamenduko militarrek Beasain hartu baitzuten.



Batzokian euskal dantzak eta kantak ikasi zituen Jesusek, eta amak erakutsi zion abertzaletasunak itxura ezagutu zuen abertzaletasuna ez zen inolaz ere "chauvinista" eta atzerakoia. Eli Gallastegi "Gudari" bizkaitarra buru zuela, garai hartan langileek jasaten zuten zapalkuntza gaitzesten zuen eta inperialismoaren aurkako herri-abertzaletasunaren oinarriak finkatu zituen.

Eskuineko abertzaletasunaren eta Jesus atxikitu zitzaion "Gudari"ren ildokoaren arteko bereizketa 1916ko Bazko Egunean Irlandako abertzaleek Britaniar koroaren aurka burututako matxinadaren ondorioz gertatu zen. Abertzaletasun ofizialak matxinatutakoei eraso egin zien "Euzkadi" astekarian. Aldizkari horretan Luis Eleizalde "Axe" *k amesgile eta zoro* "izatea leporatu zion irlandar buruzagietako bati, Patrick Pearse poetari. "Euzkadi"ren Zuzendaria, Engrazio Aranzadi "Kizkitza", ingelesek fusilatu berri zuten Roger Casement irlandar independentziaren aldeko borrokalariaren kontra azaldu zen. Eusko Gaztedia sutan jarri zuen horrek, eta fusilatutakoaren arimaren aldeko meza antolatu eta Biltzar batean Aranzadiri karguak kentzea eskatu zuen. Abertzalegoaren alderdi honek eredu eta adibidetzat zuen irlandarren borroka. "Aberri" astekariak askotan aipatu zuen borroka hori eta Gallastegik beren *"aheniaren independentziarako zazpi mendetako borroka itzeleredugarria"* goretzi zuen.

Marokkoko guda piztu zenean Rif tribuak Espainiarekiko menpekotasunaren aurka oldartu zirenean, gerra honen aurka eta Marokoren askatasunaren alde idatzi zuen Gallastegik "Aberri" aldizkarian. Gerra horretara joateari muzin egiten zioten eta desertore, intsumiso edo altxatu bihurtutako euskal gudari gazteen alde mintzatu zen gartsu. Abd-el-Krim riftarren buruzagiaren borrokaren alde egin zuen eta "mairu basati eta anker"en kondaira gaitzesten saiatu zen.

Jose Maria Lorenzo irakaslearen arabera *"nazio-auzia kolonien eta askapenerako mugimenduen auziarekin dago lotuta, eta Hirugarren Internazionalaren eta Internazional Komunistaren xedeekin bat dator"*(8).

1921eko uztailaren 23an, Gallastegi, Errazti, Uribe-Etxeberria eta Victorikak osatutako Eusko Gaztediyaren Zuzendaritza Batzordeari bere karguak kentzea erabaki zuen Comunion Nacionalistak

Urte bereko irailaren 4ean, Eusko Alderdi Jeltzalea (EAJ) izena hartu zuen alderdia sortzea erabaki zuten Eusko Gaztedia-ren Bilboko egoitzan, Eli Gallastegik zuzendutako batzar batean. 1916an Comunion Nacionalista Vasca izena hartua zuen EAJk. Independentziaren aldeko borrokari uko egin zion eta Espainiako burgesiarekin bat egin zuen. Beraz, Comunion deitua eta independentziaren aldeko eta aranazale amorratua zen EAJ izan ziren aurrez aurre Euskal Herrian.

Baina EAJren jarrera ez da muturrekoa nazio-auziari dagokionaz soilik. Sistema kapitalista eta langileek jasaten zuten bidegabeko zapalkuntza ere eraso egin zituen Gallastegik bere idatzietan. Hala ere, ez zuen marxismoa goretzi. Behartsu eta aberats, langile eta ugazaben arteko bategitearen aldekoa zen, hauek langileen ustiakuntzari uko egiten bazioten. Komunistei hurbildu zitzairen ihardunbideari zegozkion kontuetan.

1923an Bizkaiko Meatzarien Sindikatuak deitutako greba orokorra zela eta, komunistek zuzendutako Bilboko "Herriko Etxea" erasotu zuten

Goardia Zibileta polizi indar ugarik. Hormen eta leihoen kontratiro egin eta gero, egoitzan oldeka sartu eta bertan ziren 40 borrokalari hil zituzten, eta besteren artean balaz zauritu zuten Perez Solis buruzagia.

Gobernu Zibilaren oharrak, egoitzan aterpea bilatu zuen iheslari baten bila zebiltzalaeta polizien kontra egindako erasotik babestu egin behar izan zutela zioen. Hildako bakarrak hitz egin zen, Eduardo Nuñez –ez alegia. Larrinagako espetxean atxilotuek esanak, "Aberri"k argitara eman zuen eskutitz batez ezagutarazi ziren.

Jarrera zeharo desberdina izan zuen abertzaletasun ofizialak, Ramon de la Sota Zuzendari zuen Bizkaiko Diputaziotik, 1917an greban ziren langileen aurka eskuhartzean *"ordena publikoaren berrezarpenerako erabateko eskuhartzeagatik armadari goratzarre"* egin zion eta (9).

Larrañagak berak komunistenganako beste urreratze une bati aipu egin zion 1923an: *"Bilbon Euskal Gazteen Biltzar bat egin zen eta Gipuzkoako bost gazte-erakunderen ordezkari Joan nintzen ni, eta Biltzar horretan Espainiaren inperialismoaren kontrako borroka armatua antolatzea eta bestalde, Bizkaiko komunistekin harremanetan jartzea erabaki zen, azken hauek Vasconiaren independentzi eskubidearen alde azaldu baitziren eta aberrien arazoai konponbide bat emateko Errusiako iraultza baitzuten eredu, eta gure artean begikotasunak izaten hasiz iren"*(10).

EAJk eta Comución erakundeak muturka izan zituzten beste jarrera batzuk. Eukal Herriarentzat arriskurik handiena *"langileria gorria"* zela zioten Comución-eko agintariek, eta haiei erantzunez, "Aberri"ko artikulu batean arrisku handiena Euskadiko kapitalismo horigorria, Espainiako monarkiaren banderarena alegia, zela esan zen. Horixe zela *"aberriaren askatasunerako borroka abertzalean gaitz gehien eragiten zuena"*.

Euskal aberriarenganako maitasunean oinarritutako eskola horretan hezi zen Jesus, inperialismoaren ukapena eta agintari abertzaleen patxada salatzea oinarri zituen eskola horretan alegia. Irakaspen hauek gorde egin zituen eta geroago iritzi eta ikasketa berriek aberastuko zuten bere iharduera politiko osoan argibide izan zitzaizkion.

Jesus 1911n sortuzen Eukal Langileen Sindikatuan sartu zen (SOV, egungo ELA-STV-ren aitzindaria), sindikatu abertzale katolikoan, "Langileen Batasuna eta Euskal Anaitasuna" aldarrikatzen zituen hartan. Sindikatu horrek deituta greba bat antolatu zuen CAF-en. Bera ikastun edo aprendiz zelako aitzakiaz baliatuz ziztu bizian bidali zuten Jesus lantegitik.

Greba hori gogoan dute gaur egungo Beasaingo bi biztanlek: CAFen 50 urtez lan egin zuen Jose Mendia jaunak eta gaur dituen 90 urterekin osasun eta umore inbiriagarriak dituenak, eta Jose Manuel Ibarbia jaunak. Biak ikastunak, aprendizak, ziren ("pintxeak") eta 10 lanorduko eguna bete eta pezeta bat irabazten zuten. Orduan zegoen Sindikatu Bakarrak soldata igotzeko Zuzendaritzak emandako ezezkoaren aurrean greba deialdia egin zuen. Greba, erreal bateko, 25 ehuneneko igoerarekin amaitu zen. Mendiak, burdinolako tailer mekanikoko tornulari gisa lan egiten zuen eta Larrañaga gazteaz oroitzen da. Ibarbiak *"greba serioa"*



izan zen -dio-. Gogoratzen dut Ormaiztegitik eta Seguratik autoak zetozela zaindutako «eskirolekin»"

Jesusek esku hartu zueneko iharduera hori Beasaingo aurreneko greba-saiakera izan omen zen.

Beasaingo greba baten lehenengo albistea PSOEko organoa zen "EI Socialista" k ematen du 1900en. "Txikia" izan zen eta 90 langileei eragin zien.

Fusi Aizpurua irakasleak gipuzkoar langile-taldearen desmobilizazioa eta konkretuki Beasaingoa deskribatzen du: *"1910ean artean, probintziako lantegi garrantzitsuenetatik iritsitako txostenak langileen desmobilizazio ia osoa aipatzean bat zetozen: Beasaingo trenbide-materiala egiteko lantegiko Zuzendariak 1911n, bere 1.200 langileekin probintziako handienekoak, bere pertsonala «menpekoa eta lasaia, bere bizia ongi irabazten duena da», eta, «grebak ez dira pizten»" (12) dio.*

Sindikatuaren ahulezia handiak edo antolamendu-ezak (1930. Urtearen hamarkadararte itxoin behar izan zen SOV, UGTko sozialistak eta CNTko anarkistak indartu arte), ekonomi egoera ona eta langileen baserriar jatorria lirerateke eragin eskas haren arrazoiak. Honela azaltzen du Fusi Aizpurua irakasleak garai hartako gipuzkoar langileen egoera: *"Datozen nekazari-munduko lan-zaletasun eta mendekotasun-ohiturak beren lantokietara hedatu dituzte, nekazari-inguru hari lotuta darraite askok, bai inguru hartan bizi direlako eta baita lurra lantzen darraitelako ere".*

Sociedad Española de Construciones Metálicas-eko ia langile guztiek 1917ko abuztuaren 13an UGT eta CNTk egindako greba orokor iraultzailearen deialdia jarraitu zuten nahiz eta 16an 700 langile baino gehiago lanean berriro hasi. Arazoak ekonomi zabalkundeak langileen bizitzan hobekuntzarik ez ekartzean zuen jatorria, eta 1917ko lehen seihilekoan salneurriak Estatu osoan igotzeak deskontentua handitzea ekarri zuen.

1920ko maiatzaren 27an Beasain eta Ordizia Donostiako Langile Elkartasunerako Herriko Federazioak (FLSO) Gipuzkoa osoan deitutako greba orokorrean parte hartu zuten, autoen "abiadura" handiegia zela eta sortzen ari ziren etengabeko trafiko-istripuengatik protesta egiten zuten Errenteria eta Pasaiako herrien aurka Miralles Gobernari Zibil J.ak, hartutako neurriez protestatzeko.

Baina benetako gizarte gatazka Beasainen eta Goierri osoan sortu zen 1930etik aurrera CAFen, New York-eko Burtsan izandako erorraldiaren ondorioz sortu zen mundu-krisia zela eta. Geroago aztertuko dugu krisi latz hau.

Lanik gabe, Jesus are gehiago eman zitzaion Euskal Gaztediaren lanari.

Primo de Riverak Diktadore egin zuen bereburua 1923ko irailaren 13an, Errege zen Alfontso XIII.aren onespina jasota. Alderdi politikoak ezereztu, egunkariak zentsuraren mendean jarri eta ideia abertzaleak eraso egin zituen.

1926ean Diktadorea segurtasun neurritz eta agintariz ondo babestua zela, Ordiziako tren-geltokian agertu zerbait inauguratu eta herriarengana hurbiltzeko asmotan. Jesusek eta lagun batek, EAJko kideak biak, nasan pilatutako jendearen tartean sartu eta diktadoreari "Gora Euskadi Askatuta!" ohiukatzekeo ardura



hartu zuten beren gain. Poliziek eraso eta atxilotu egin zituzten, baina berehala aske utzi zituzten.

Jesus ezaguna izaten hasi zen polizien artean. Irlandak Britainia Handiarekiko zuen menpekotasunaren kontrako grose greban hil zen Cork-eko Alkatea goresten zuen artikulu bat idaztean arriskuan jarri zuen berriz ere bere askatasuna.

Jesus irlandar independentziazaleen ekintzez miresmenez betea zebilen egun haietan, aberrizale guztiak bezalaxe. Agintariek Euskadiko egoerarekin parekotasun nabaria antzeman zuten artikuluan eta iraultza bereiztailerako deialdia ere bai,beraz Jesus espetxeratzea erabaki zuten. Garaiz jakin zuen ordea zetorkiona eta lehenago egik eta beste euskaldun eta kataluniar buruzagi abertzale batzuek hartutako bidea hartzea erabaki zuen erbestera alde eginez.

Lapurdiko Bokalen eta Landetako Tarnos, Baionatik 4 kilometrotara, lana aurkitu zitekeen burdinola handi bat bazegoela entzuna zuen Jesusek. I Mundu Gerrako hilketen ondorioz bertako eskulangile gutxi zeuden han eta Bidasoaren alde honetako langile ugari joanak ziren hara lanera. Berriok Primo de Rivera-ren polizietatik babesteko Bokalera jotzera bultzatu zuten.

Bokale eta Tarnos Aturri ibaiaren eskuin ertzean daude, Ipar Euskal Herriaren mugan. Tarnos Bokalean bertan dago,eta Bokale jarraian. 2 solairuko etxeak dituzten bi herrigune txikik osatzen dute Bokale. Duela 30 urte itxi zen Aturriko burdinolak (galdategiak) markatu du lurralde hura.

Frantziako estatuko hego-mendebaldeko burdingintzagune handia izan zen. Bere hazkunde ekonomikoak eta iritzi komunistek lortu zuten indarrak nabarmendu zuten.

Bokalek Alkate komunista du 1920az geroztik, eta gaur, 1993an, SESB desagertu eta gero ere, komunista da hango Alkatea.

Frantziako Alderdi Komunistaren (FAK) antolakuntzako eskualde-egoitza zen eta Behe eta Goi Pirineoak nahiz Landak hartzen zituen. Alderdi Komunista, sindikatuak eta Udala,herriaren bizkarrezurra ziren eta polizia eta herriko jauntxoak horrek kezkatzen zituen. 1921ean Baionako Komisariak Prefetari egindako txosten batean zera zioen: *"Ezin uka landetako propaganda-zabaltzaileek laguntza handia aurkitu dutela Aturriko burdinolako burdingintza-sindikatuan, izan ere, sindikatu hau eskualdeko sindikatuen antolakuntzaren ardatza izan baita beti CGTrentzat"*(13).

1927an Dr.Depeton lur-jabe handiak zera idatzi zion Prefetari: *"Orain hilabete batzuz geroztik matxinada haizea dabil eskualde honetan. Bokaleko komunistak gure nekazariak piztera etortzen dira... Hazi txarra ereiten dute... Joan den igandean bilera izan zen Saint Marie-de-Gossen-n. Gazte horietako batzuk alkandora gorria jantzita eta Sobieten banderarekin, bizikletan etorri dira paskinak zabaltzera... "*

Giro honekin egin zuen topo Jesusek Bokalera heltzean. Bere alderdian izan zen EAJk bultzatutako Marokko-ko gerrari komunista frantziarrek emandako ezespenak erne jarri bide zuen Jesus.

FAKek Gerraren aurkako Ekintza Batzordea bultzatu zuen eta 1925ean Leninen "Inperialismoa, kapitalismoaren azken atala" iiburua berrargitaratu zuen. Bera zen bezelako euskal independentzi zale bati ezin oharkabean pasa



Leninen 1916ko agiri bateko testua. *"Nazioen autodeterminazioak zer esan nahi duen, legezko azalpenik gabe, azalpen abstrakturik «asmatu» gabe eta nazio-mugienduen baldintza historiko eta ekonomikoak aztertuz ulertu nahi badugu, honako ondorio honetara iritsiko gara ezinbestean: nazioen autodeterminazioa nazionalitate arrotzeko taldeetatik estatu-arloan egindako «bereizketa» dela ulertu behar da, Nazio-Estatu burujabe/independentea eratuz".*(14).

Ezta Stalinen testu hau ere: *"Nazioen kontra bideratzen dituzten zapalkuntza-politikako era guztien aurka egiten dute eta egingo dute borroka langileek, zolienetatik zakartze era guztien aurka ere. Horregatik herrialde guztietako sozialdemokraziak nazio guztiek autodeterminaziorako duten eskubidea aldarrikatzen du. Nazioaren nondik-norakoa nazioak berak erabaki behar duela esan nahi du autodeterminazio-eskubideak, eta inork ez duela indarrez bere bizitzan eskua sartzeko eskubiderik, ez bere eskola eta gainerako erakundeak suntsitzeko, bere ohitura eta usarioen aurka egiteko, bere hizkuntzari oztupoak jartzeko, edo bere eskubideak murrizteko"* (15).

Garbi dago noski nazio-auziari buruzko teori eredu hauek erakarri zutela Jesus komunismora.

Justiziarik ezari, berdintasunik ezari eta gizakien zorigaitzari komunismoak ematen zizkien erantzun zorrotzek ere erakarria sentitu zen noski.

Bokalen, Estat Catalá-ko Francesc Maciá buruzagiak Jose Bullejo, EAKko Idazkari Nagusiak, Primo de Riveraren aurkako kataluniar matxinada baterako diru bila Moskura egiteko bidaiaren berri eman zioten espainiar langileek Jesusi. Garai hartan beren aberria aske ikusi nahi zuten askok, Moskura begiratzen zuten.

Bere arreba Maria Josefak dioenez, Jesusek Bokalen ezagutu zuen Rafael Marin. Ez dut hori egiaztatzerik izan, eta EAKren agiritegian gordetako paper batek Donostian ezagutu zuela dio. Sebastian Zapirain, EAKko buruzagi historioak esaten digunez, Marin *"Donostiako komunismoaren lehenengo aitzindaria izan zen. Donostiako Udaleko langilea zituena izan zen"* (16). Zosimo Garciak, 1930 ingurutik Donostiako AKko kidea izan zenak, *"gizon eredugarria eta oso estimatuta zela"* esaten digu, *"Gazteriak Sozialistetatik etorria"* (17), nahiz eta ezagutzera ez iritzi izan. Diktadurak atzerriratu egin zuela badakigu eta litekeena da erbesterratu beharra izatea eta horregatik Bokaleko guneko komunistara joan izana. Han aurkitu bide zuen, Jesus gazte egonezina eta joera berrirako bereganatu zuen nonbait.

Jesus urte t'erdi inguru egon zen Bokalen, baina itzuli zenean *"zeharo aldatua zegoen, bere euskal izaera galdu gabe egon arren. Beretzat hori zen lehenengo gauza"*, esan digu bere arabak. Jesus zergatik egin zen komunista galderari erantzuteko egungo Bokalen zehar ibili besterik ez dago. Plazan, kafetegi zahar samar bat, botika eta paperdenda bat daude eta Fabien Koronelaren izena du, nazien aurkako borroka gidatu zuen komunista itzelarena. Eskolak Henri Barbusse izena du, frantziar idazle komunistarena alegia. Lenin izeneko kale bat ere bada. CGTk burdinezko saredun leihoak eta zuriz pintatutako egoitza-txaleta du. Komunistek indartsu diraute, burdinola (galdategia) ixteak lotarako herri bihurtu badu ere.



Ez dago bapateko jauzirik Jesusen politika-ihardunean. Eusko Gaztediko militante izanak eta erbestealdiak komunismora eraman zuten era naturalean.

OHARRAK

1. 1992ko ekainaren 6an egilearekin egindako elkarrizketa.
2. 1992ko ekainaren 6an egilearekin egindako elkarrizketa
3. "Modernización y dinámica política en la Sociedad Guipuzcoana de la Restauración 1876-1915". Luis Castells. Siglo XXI argitaletxea. Madril. 1987.58.or.
4. Liburu berean, 62 orrialdea.
5. "Política obrera ene l Pais Vasco 1880-1923". Juan Pablo Fusi Aizpurua. Turner argitaletxea. Madril. 1975.364.or
6. "Beasain: Historia de un municipio guipuzcoano" Miguel Angel Lopez beste idazle batzuk. 1987.
7. "Estructura y procesos sociales ene l Pais Vasco". Ander Gurrutxaga eta beste idazle batzuk.EHU. Bilbo. 176.or.
8. "Gudari: una pasión útil". Txalaparta argitaletxea. Tafalla. 1992. 98. Or.
9. "Nacionalismo Vasco y clases sociales". Beltza. Txertoa argitaletxea. Donostia. 1976.
10. Antonio Elorzak aipatua "Cuestión nacional y clase obrera en Euskadi" lanean. IPES-en. 1. Hezkuntza. Liburukia.
11. "El Socialista". 1900eko abenduaren 8koa.
12. Juan Pablo Fusi Aizpurua. 179. or.
13. "Regards critiques et dialogues d'un communiste" liburuan aipatua. Andre Moine. Editions de l'Étincelle. Bokale. 1986.
14. "Sobre el derecho de las naciones a la autodeterminación". Progreso argitaletxea. Mosku. 1975.
15. "El Marxismo y la cuestión nacional". Avance argitaletxea. Bartzelona. 1976.
16. 1992ko ekainaren 11n egilearekin egindako elkarrizketa.
17. 1992ko ekainaren 12an egilearekin egindako elkarrizketa.

